

2023KO IRAILAREN 28KO BILERAREN AKTA	ACTA DE LA SESIÓN DEL 28 DE SEPTIEMBRE DE 2023
<p>Organoa: Udalbatza. Batzarra: Ezohikoa. Deialdia: Lehenengoa. Eguna: 2023.09.28 Ordua: 14:00. Tokia: Udaletxeko areto nagusia.</p> <p>Bertaratuak: Alkatea: Oihane Uribeetxebarria Garmendia</p> <p>Zinegotziak: Rita Torrico Muniz Sergio Goicoetxea Bergera Eba Leatxe Itoiz Miriam Mendikute Garate Asier Gartzandia Ormaetxea</p> <p>Bertaratu ez direnak: Patxi X. Razkin Sagastibeltza</p> <p>Idazkaria: Maria Barkos Berruezo.</p>	<p>Órgano: Pleno. Sesión: Extraordinaria. Convocatoria: Primera. Día: 28.09.2023 Hora: 14:00. Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento.</p> <p>Asistentes: Alcaldesa: Oihane Uribeetxebarria Garmendia</p> <p>Concejales: Rita Torrico Muniz Sergio Goicoetxea Bergera Eba Leatxe Itoiz Miriam Mendikute Garate Asier Gartzandia Ormaetxea</p> <p>No Asisten: Patxi X. Razkin Sagastibeltza</p> <p>Secretaria: Maria Barkos Berruezo.</p>
<p>Aztertu beharreko gaiak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Azkeneko aktaren onespena. 2.- Zundaketarik ez! mozioa. 3.- Alkatearen ebazpenak 4.- Fakturak. 5.- Eskari eta Galderak. 	<p>Asuntos a tratar:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Aprobación Acta sesión anterior. 2.- Moción: Zundaketarik ez!. 3.- Resoluciones Alcaldía. 4.- Facturas. 5.- Ruegos y preguntas.
<p>1.- AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.</p> <p>Aurreko ezohiko bilkura 2023ko uztailaren 27an; eta honekin batera doa bilkura honen aktaren zirriborroa.</p> <p>Bilkura hastean, bilkuraren buru egiten duenak bertaratu diren korporazioko kideei galdetuko die ea oharririk egin nahi dioten deialdi honekin batera doan aktaren zirriborroari, hala ezartzen baitu Toki Entitateen Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiko 91. artikularekin bat (araudi hori 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).</p>	<p>1.- APROBACION ACTA SESION ANTERIOR.</p> <p>Se adjunta borrador de acta extraordinaria de la sesión anterior celebrada el 27 de julio de 2023.</p> <p>Al comienzo de la sesión, quien la preside pregunta a los miembros de la Corporación que se encuentren presentes si desean formular observaciones al borrador de acta que se ha adjuntado a esta convocatoria, tal y como dispone el artículo 91 del Reglamento de Organización y Funcionamiento (Real Decreto 2568/1986).</p>



<p>Hori horrela, honakoa ONARTU DA:</p> <p>Lehenengoa.- 2023ko uztailaren 27koohiko bilkurako aktak onestea.</p> <p>Bigarrena.- Onetsitako akta Akten Liburuan transkribitzea, hala egin behar dela ezartzen baitu, bai eta nola egin behar den ere, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 323. artikulua.</p>	<p><i>Visto lo anterior, SE ACUERDA:</i></p> <p><i>Primero.- Aprobar el acta de la sesión extraordinaria del 27 de julio de 2023.</i></p> <p><i>Segundo.- Proceder a la transcripción del acta aprobada en el Libro de Actas, de conformidad con el artículo 323 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de Administración Local de Navarra, y en el modo en que dicho precepto establece</i></p>
<p>2.- Zundaketarik ez! Mozioa</p> <p>Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak Abiadura Handiko Trenaren proiektua garatzeko Iruñea- Altsasu eta Iruñea-Beasain trazatuari dagozkion zundaketak eta azterlanak egiteko eskaera aurkeztu du Sakanako hainbat udaletan; “ESTUDIO INFORMATIVO DEL PROYECTO DE CORREDOR FERROVIARIO CANTÁBRICO-MEDITERRÁNEO. TRAMO PAMPLONA-ALSASUA” delakoa hain zuzen ere.</p> <p>Honen aurrean, zentzuz jokatzeko garaia da, AHTa garatzeko itsukeria alboan utziaz, egin nahi dituzten zundaketa hauekin batera. Ezin da euro bat gehiago inbertitu egunetik egunera zalantza gehiago eta gure eskualdeetan aurkako gero eta jarrera zabalagoa sortzen duen azpiegitura zentzugabe batean.</p> <p>Zundaketa hauek AHTaren garapenerako pauso bat diren heinean, gure udalerriko eta gure bizilagunen interesak babestea ezinbestekoa da, proiektu horrek Nafarroako herritar guztientzat ekarriko lituzkeen ondorioak kezkarriak izanen direla ere kontuan izanik.</p> <p>AHTren diru xahutzea ikaragarri hori herritarren beharrak asetzeko bideratzea garrantzitsua da, bereziki oinarritzko eta funtsezko zerbitzu publikoak finantzatzera.</p> <p>Aldiz, azpiegitura erraldoi hauen aurrean, egungo trazadura hobetzean eta modernizatzean oinarritutako alternatibak seriooki eta zentzuz lantzeko bideak landu behar dira.</p> <p>Horregatik guztiagatik, Lakuntzako Udalak honoko eskaerak egin eta erabaki hauek hartzen ditu:</p> <p>1- Abiadura handiko linearen proiektua, bai</p>	<p>2.- Moción: Zundaketarik ez!.</p> <p><i>El Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana ha presentado en diversos ayuntamientos de Sakana una solicitud para la realización de sondeos y estudios correspondientes al trazado Pamplona-Alsasua y Pamplona-Beasain para el desarrollo del proyecto de Tren de Alta Velocidad "ESTUDIO INFORMATIVO DEL PROYECTO DE CORREDOR FERROVIARIO CANTÁBRICO-MEDITERRÁNEO. TRAMO PAMPLONA-ALSASUA".</i></p> <p><i>Ante esto, es hora de actuar con sensatez, dejando de lado la ceguera del desarrollo del TAV. No se puede invertir un euro más en una infraestructura absurda que cada día genera más dudas y una oposición cada vez más amplia en nuestras regiones.</i></p> <p><i>En la medida en que estos sondeos son un paso hacia el desarrollo del TAV, es imprescindible preservar los intereses de nuestro municipio y de nuestros vecinos y vecinas, teniendo en cuenta que las consecuencias de este proyecto para el conjunto de la ciudadanía navarra serán preocupantes.</i></p> <p><i>El enorme derroche de dinero del TAV es importante para satisfacer las necesidades de los ciudadanos, especialmente a la financiación de los servicios públicos básicos y esenciales.</i></p> <p><i>Frente a estas gigantescas infraestructuras, proponemos trabajar, con seriedad y sentido, las alternativas basadas en la mejora y modernización del trazado actual.</i></p> <p><i>Por todo ello, el Ayuntamiento de Lakuntza formula las siguientes solicitudes y acuerda:</i></p> <p><i>1- Paralizar el proyecto de línea de alta velocidad, así como los sondeos y estudios correspondientes al trazado Pamplona-Alsasua y Pamplona-Beasain.</i></p>



<p>eta Iruñea- Altsasu eta Iruñea-Beasain trazatuari dagozkion zundaketak eta azterlanak gelditzea.</p> <p>2.- Tren sozial baten alde aurkeztu den edo ildo horretan egin daitezkeen beste alternatibak aztertzea. Alternatiba horiek, beti ere, trenbide-sarea modernizatzea, tren bidezko salgaien garraioa bultzatzea, gure herrietako eta eskualdeetako geltokiekiko konexioak eta maiztasunak hobetzea izan behar dute oinarri.</p> <p>3- Hiritarrei informazioa bideratzea, eztabaida soziala bultzatzea eta haien iritzia jasotzea edozein tren proiektuaren obrek in hasi baino lehen.</p> <p>4-Zundaketa hauek bertan behera gera daitezzen eskatuz antolatzen diren mobilizazioekin bat egitea.</p> <p>5- Akordio hau herritarrei eta hedabideei jakinaraztea.</p>	<p>2.- <i>Analizar otras alternativas que se hayan presentado a favor de un tren social o que se puedan realizar en este sentido. Estas alternativas deben basarse en la modernización de la red ferroviaria, el impulso del transporte de mercancías por ferrocarril, la mejora de las conexiones y frecuencias con las estaciones de nuestros pueblos y comarcas.</i></p> <p>3- <i>Facilitar información a la ciudadanía, fomentar el debate social y recabar su opinión antes de iniciar las obras de cualquier proyecto ferroviario.</i></p> <p>4-<i>Incorporarse a las movilizaciones que se organicen solicitando la suspensión de estos sondeos.</i></p> <p>5- <i>Dar a conocer este acuerdo a la ciudadanía y a los medios de comunicación.</i></p>
<p>3.- Alkatearen ebazpenak</p> <p>Toki Entitateen Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiko 42. artikularekin bat (araudi hori 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), Osoko Bilkurari ondoko ebazpenen berri ematen zaio: 2023/47. ebazpenetik, uztailaren 27koa, 2023/62. ebazpenera, irailaren 25ekoa; bitartekoak, biak barne.</p>	<p>3.- Resoluciones Alcaldía.</p> <p><i>De conformidad con lo dispuesto en el artículo 42 del Reglamento de Organización y funcionamiento (Real Decreto 2568/1986), se da cuenta al pleno de las siguientes resoluciones dictadas por alcaldía: desde la resolución nº 2023/47, de 27 de julio; a la resolución nº 2023/62 de 25 de septiembre; ambas incluidas.</i></p>
<p>4.- Fakturak.</p> <p>Abuztuan eta irailean jaso diren fakturen zerrenda onartu da.</p> <p>Guztira 87.060,06 euro izan da.</p>	<p>4.- Facturas.</p> <p><i>Se aprueba la relación de facturas recibidas el mes de agosto y septiembre. Asciede a 87.060,06 euros.</i></p>
<p>5.- Eskari eta Galderak.</p> <p>Ez dira egin</p> <p>Eta besterik gabe, 14:25ean, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatua; eta Alkateak sinatua</p>	<p>5.- Ruegos y preguntas.</p> <p><i>No se formulan</i> <i>Y no habiendo más asuntos que tratar y siendo las 14:25 horas se levanta la sesión de la que se extiende la presente acta que conforme la firma la Alcaldesa y la Secretaria, que lo certifica</i></p>

